

2009- 2010

ESKOLAKO AGENDA 21 LAUDIO - BIODIBERTSITATEA



Galemys S.L.

2009-2010

...:[LATEORRO IKASTETXEA]:...

SARRERA

Jaun-andre agurgarriak, foro honetara gatoz Laudioko ikasleen izenean, Eskolako Agenda 21ean garatutako lanaren emaitzak aurkezteko. 2009-10 kurtso honetan **biodibertsitate** gaia landu dugu.

Laudioko 7 ikastetxetako 2.700 ikasle baino gehiagok ibaia eta ortuak aztertu ditugu, kaletara, parketara eta berdegunetara atera gara hauen gaur egungo egoera ezagutzeko eta herriaren ekosistema adierazgarrienak eta hurbilekoak denborarekin izan duten eboluzioa behatzeko. Inguruko ortuzainak elkarriketatu ditugu eta gure auzotarrak inkestatu ditugu ere. Gure herriko biodibertsitatearen analisia posible egin duten eta inkestak erantzun dizkiguten jende guztiari eskerrak ematen diegu.

Baita ere, gure ohiturak eta ekintzak aztertu ditugu, gurekin batera bizi diren izaki bizidunei nola eragiten dieten ikertuz. Gure inguruen (hirikoa, landakoa eta naturala) dibertsitatea eta paisaiaren kalitatea landu dugu eta nekazaritzaren, transgenikoen eta dibertsitate biologikoaren arteko harremanak ikertu ditugu.

Gaur Udaletxera gatoz, gure gurasoen, irakasleen eta auzokideen laguntzarekin landu ditugun ondorioak, konpromisoak eta proposamenak aurkezteko.

HIRIA ETA BERE EKOSISTEMAK

Ikertutako 4 ekosistemetatik (ibaia, parkea, ortua eta kalea) biodibertsitate gehien daukatenak **ibaia** eta **parkeak** direla hausnartu dugu. Hala eta guztiz ere, Laudioko parkeak zuhaitz eta lorategi gehiago izatea gustatuko litzaiguke, zementatu gabe egotea eta eremu zabalagoak edukitzea ere, elementu hauek biodibertsitatea handiagotzea lagunduko luketelako.

Hona hemen 130 herritarrei egin diegun inkesten eta gure lanaren bidez lortutako emaitza nagusienak:

HIRIAN, oro har, honako hau ikusi dugu:

- Industrializazioa, eraikuntzak, errepideak, automobilak eta biztanleria handiagotu da.
- Kutsadura handiatu da.
- Urbanizatze masiboaren ondorioz nekazaritzarako lurrak galdu dira.
- Animalia eta landareen espezie kopurua gutxiagotu da, alderdi ekonomikoa bakarrik hartzen delako kontuan, espezieei eta habitatei arreta jarri gabe.

IBAIAN:

- Isurketak gutxitu dira.
- Ibilgua sakondu da.
- Landare eta animalia kopurua handitu da.

...:[LAMUZA IKASTETXEA]...

KALEAN:

- Berdeguneak gutxitu dira eraikinak, espaloiak eta plazak eraikitzeko.
- Espaloiak zabaldu dira.
- Zuhaitzak landatu dira eta lorategiak sortu dira.
- Aparkalekuak eraiki dira.

PARKEAN ETA BERDEGUNETAN:

- Zikinkeriak eta zaborra zoruan botata dago zakarrontzi gutxi daudelako.
- Txakur gorotzak daude.
- Belarra ez da sarritan mozten eta giza baliabideak falta dira lan hau burutzeko.
- Obra lanak daude.

Herritarren ustez, Laudioko udalerrian izandako aldaketak ez dira onuragarriak izan biodibertsitatearentzat, Aretan izan ezik, non eboluzio hori positibotzat hartu den.

Gure ingurune hiritarraren biodibertsitatea hobetzeko hurrengo **konpromiso** hauek hartzen ditugu:

- *Zaborra (txikleak, poltsak, txakur gorotzak) leku egokietara botatzea eta ez lurrera.*
- *Ibaia garbi mantendu (ez dugu zikinkeriarik botako: paperak, poltsak,...).*
- Ibai ertzeko zuhaitzak ez moztu.
- Garraio publikoa erabili edo oinez eta bizikletaz ibili kutsadura murrizteko.
- Ingurumenarentzat kaltegarriak diren jokabideak salatu.
- Seinaleak errespetatu.
- Ez egin korrikarik espaloian.
- Eskolako materiala berrerabili.

Laudioko herritarrak (hirugarren adineko pertsonak, langileak eta senideak), bereak egiten dituzte hurrengo konpromiso hauek denon artean gure herria hobetzeko.

Udalari hurrengo proposatzen diogu:

- *Ibaiaren garbiketa periodikoa egitea.¹*
- *Lantegiek sortutako kutsadura kontrolatzea.*

¹ *Letra etzanaz idatzita dauden konpromiso eta proposamenak eskola foroan bozketaren bidez aukeratu zirenak dira.

- *Paperontziak konpondu eta gehiago jartzea, adibidez, Lateorro auzoan.*
- *Kaleko zaborrak kendu eta garbitzea.*
- Laudioko parkeak eta kaleak zaindu eta konpondu.
- Hirigintza iraunkor plan bat burutzea:
 - ✓ Etxebizitzen eraikuntza ondo kontrolatzea eta planifikatzea (adibidez, etxe kopurua eta altuera).
 - ✓ Eraikuntza gutxiago eraikitzea.
 - ✓ Zonalde berde gehiago.
 - ✓ Basoak birlandatu.
- Adituen aholku eta gomendioak jarraitzea.
- Elurra eta izotza dagoenean gatza bota ordez beste modu bat erabiltzea.
- Loreontzi gehiago jartzea eta espaloietan zuhaitz gehiago landatzea.
- Zelai gehiago eta zementu gutxiago parkeetan eta ezpaloietan.
- Lamuzako parkea berritu, han dauden zuhaitzak eta landareak zaindu eta izenak dituzten plakak berritea, ahateen lakua garbitzea, gauez zaintza gehiago egotea ingurunea ez hondatzeko eta botelloia debekatzea.
- Bidegorri eta iturri publiko gehiago jartzea.

Alkateari zuzendutako galderak:

- Zer iruditzen zaizu aurten landu dugun gaia: biodibertsitatea? Garrantzitsua dela pentsatzen duzu? Zuretzat zer nolako garrantzia dauka?

...:[F.LEGORBURU IKASTETXEA]:...

PAISAIK, BERDEGUNEAK ETA EREMU NATURALAK HERRIAN

Laudioko paisaia mota desberdinak behatu eta aztertu ondoren, egiaztatu dugu paisaia naturalak eta landakoak hirikoa baino kalitate handiagoa daukatela, animalia dibertsitate handiagoa daukatelako, lursail menditsuak dira, malda eta ehundura mota desberdinekin, kutsadura gutxiago daukate eta eraikuntza gutxiago dute.

Laudioko eremu naturalei eta berdeguneei dagokionez, nahiz eta hainbat daudela ohartu, besteren bat gehitzea proposatzen dugu hurrengo leku hauetan:

- Erdigunean.
- Zumalakarregi kalean.
- Lateorro, Ugarte, Larrañon auzoetan eta Aretarako bidean.

- Etxebizitzen inguruan, espaloien ertzetan, eta auzo berrietan.
- Aldaikoerreka ibai ondoan.

Eta gainera udaletxeari hurrengo hau proposatzen diogu:

- *Santa Marina eremu babestu bezala deklaratu dezala.*
- *Diru-laguntzak eman ditzala landa guneetan (baserrietan) animaliak izan ditzaten.*

Paisaien, berdeguneen eta eremu naturalen zainketari eta babesari dagokionez, hurrengo konpromiso hauek hartzen ditugu:

- *Eremu naturalak zaindu eta babestu, adibidez, mendira jotzen garenean:*
 - ✓ *Ez dugu zaborrik botako.*
 - ✓ *Ez ditugu adarrak, hostoak ezta loreak apurtuko (zuhaitzek oxigenoa ematen digute eta gainera animalien habitataren parte dira).*
- Paisaia interesa edo interes ekologikoa daukaten eremuak kontserbatu.
- Bizikletaz ez gara ibiliko menditik zehar.

...:[AIALA KANTZELARIA IKASTETXEA]:...

BARATZEZAINZA, NEKAZARITZA ETA TRANSGENIKOAK

Ikuspegi ekonomikoak eta ingurugiroan sortzen diren ondorioak kontuan hartuz, nekazaritza eredu eraginkorra hautatu nahi dugu eta hori nekazaritza ekologikoa dela pentsatzen dugu. Nahiz eta epe luzeko onurak izan, ekoizpen ona lortzen du eta biodibertsitateari kalte gutxi egiten dio.

Baratzei dagokionez hurrengoaz ohartu gara:

- Gero eta leku gutxiago dago baratze bat izateko.
- Erabiltzen ditugun tresnak gero eta modernoagoak dira.
- Biztanle gehienengokogibidea zerbitzuak dira, gutxi lan egiten dute lehen sektorean.

Baratzetako eta nekazaritzako biodibertsitatea hobetzeko eta gure osasuna eta ingurumena babesteko, ikasleok eta inkestatutako pertsonak hurrengo hau betetzeko konpromisoa hartzen dugu:

- *Baratzak zaindu eta errespetatuko ditugu: ez ditugu zapalduko, lapurtuko, landareak apurtuko, ...*
- Nekazaritza ekologikoa ikasiko dugu.

- Konposatu kimikorik eta intsektizidarik gabeko nekazaritza egingo dugu.
- Produktu ekologikoak erosiko ditugu.
- Baserriko produktuak kontsumituko ditugu.

Eta proposamen hauek luzatzen dizkiogu Udalari:

- *Baratzeak jartzeko leku gehiago ematea edo uztea.*
- *Produkzioa baino gehiago kalitatea eta osasuna bermatzen duten nekazaritza sistemak sustatzea:*
 - ✓ *Diru-laguntzak emanez (adibidez, nekazaritza ekologikoan interesaturik daudenei laguntza ematea hasteko eta etekinak lortu arte subentzioak ematea).*
 - ✓ *Herri-azoka sistema bultzatuz (adibidez, postua dohain emanez edo larunbatetan halako gehiago antolatuz).*
 - ✓ *Azokak antolatu produktu ekologikoak saltzeko.*
 - ✓ *Azoketan produktu ekologikoak bultzatu.*
- Baratzeak jende guztia ikus dezakeen lekuetan kokatu.
- Hazi eta landare ekologikoak banatu.
- Dibulgazio kanpainak egitea nekazaritza ekologikoaren eta bere produktuen onurak ezagutarazteko.
- Laguntza eta informazioa ortuzainei eskaini.
- Laudioko nekazaritza transgenikoa kontrolatu edo desagerrarazi, negutegi gehiago jarri.
- Nekazaritza eremuak gehiago kontrolatu (intsektiziden kontrola, produktu kimikoen erabilera murriztu,...).

Alkateari zuzendutako galderak:

- Ekologikoak, sasoikoak edota hemen ekoizten diren produktuak kontsumitzen al dituzu (inguruko baserrietakoak, adibidez)?
- Ortuko produktuak jatea gustatzen al zaizu? Zeintzuk dira gehien gustatzen zaizkizuenak? Eta gutxien?

...:[LAUDIO IKASTOLA]:...

MEHATXATUTAKO BIODIBERTSITATEA: HABITATAREN GALERA ETA GIZAKIEKIN ELKARBIZITZA

Habitataren galerarekin erlazionatuta hauek izan dira aurkitu ditugun arazoak:

- Animalien desagerpena.
- Espezie bereko kideen arteko lehiaren gorakada.
- Zailtasunak ugal- bikotea bilatzeko orduan.
- Animalia espezialistek, beren elikagaia ez badute aurkitzen, bizi diren tokitik joan behar izaten dute.

Gizakien eta gainerako izaki bizidunen arteko elkarbizitza aztertzerakoan, konturatu egin gara eta esan dezakegu gatazkak sortzen dituzten zergatietako batzuk ondorengo hauek direla:

- Kontrolik gabeko ehiza.
- Zarata, istripuak eta auto harrapaketak.
- Espezieen hautaketa okerra.
- Pertsonak aurreko bi atalak kontuan ez izatea obrak burutzerako orduan.

Biodibertsitatearen alde egiteko ondorengo **KONPROMISO** hauek hartzen ditugu:

- *Animalien habitata errespetatzea (ez ditugu habiak apurtuko), animaliak egoteko leku espezifikoko batzuk beharrezkoak baitira non beren kumeak hazi ditzaketen (inori ere ez zaio gustatzen norbaitek bere etxea hondatzea).*
- *Kontuz ibiltzea suterik ez sortzeko.*
- Behar duten animaliei laguntzea.
- Izaki bizidunak errespetatzea eta zaintzea (ez akabatu, belarra ez zapaldu, ondo tratatu, ez ehizatu, ...). Norbaitek molestatzen baditu ohartaraziko diogu, hori ez dela egin behar esanez.
- Habi kutxak jartzea.
- Animaliak elikatu daitezkeen zonaldeen kopurua handitzea.
- Gure bizimodua aztertzea natura eta biodibertsitatearen kontra ez egiteko.

Animalia eta landareekin elkarbizitza hobetzeko **UDALETXEARI ONDORENGO PROPOSAMENAK** egiten dizkiogu:

- *Izaki bizidun guztiak zaintzea, bai pertsonak, animaliak eta landareak.*
- *Ehiza eta arrantza kontrolatzea eta mugatzea espezie batzuk ez desagertzeko eta animalia batzuen ehiza debekatzea.*
- Errepideak egiten direnean animalien habitata errespetatzea, eta hau posible ez balitz, gutxienez neurri zuzentzaileak burutzea.
- Landare-espezieak ondo aukeratzea Zumalakarregi etorbidean “katalpekin” gertatutakoa berriz ere gertatu ez dadin (olioa askatzen dute, labainkadak eragiten dituzte, hostoen tamaina ezegokia da, ...).
- Ingurumenari, ehizari, ... buruz auzotarrek kontzientzia gehiago edukitzea.
- Ingurumen heziketarako edota ingurumenarekiko sentsibilizazio zentroak sortzea.

...[UDAL INSTITUTOA]...

MEHATXATUTAKO BIOANIZTASUNA: ESPEZIE INBADITZAILEAK

Landare autoktono, exotiko eta inbaditzailearen arteko desberdintasunak ikasiz gero, Ludioko landaretza ikertu genuen. Atera genuen ondorio garrantzitsuena, gure herrian espezie inbaditzaileak zeudela izan zen. Espezie hauek biodibertsitateari hurrengo kalte hauek eragiten diote:

- Azkarrago ugaltzen direnez, konpetentziarik ez dutenez, espezie autoktonoen biziraupena mugatzen eta euren habitatak eta baliabideak murrizten dituzte.
- Espezie inbaditzaileak espezie autoktonoak ordezkutzen dituzte.
- Lurrean dauden elikagaiak murrizten dituzte.
- Beste espeziei desagertzeko arriskuan egotera bultzatzen diete.

Ikasleok eta inkestatutakoak honako hau egitera **KONPROMETITZEN** gara:

- *Landare exotikoak ez landatzea, bertakoak baizik.*
- Bertakoak ez diren animaliak ez askatzea.
- Udalak edo beste erakundeak proposatzen dituzten espezie inbaditzaileak murrizteko kanpainetan parte hartzea, zuhaitzaren eguna esate baterako. Horrez gain kanpaina hauek ezagutaraztera konprometitzen gara.

Udalari, biodibertsitatea zaintzeko neurri hauek **PROPOSATZEN** dizkiogu:

- *Landare eta animalia exotikoen erabilpena ez bultzatzea, eta dauden espezie inbaditzaileak kentzea.*
- *Zuhaitzak landatzeko kanpainak egitea, Zuhaitz Eguna ezagutaraztea.*
- Bertako zuhaitz eta landareak ez moztea (pagoak, haritzak, ...).
- Espezie autoktonoak bultzatzea eta espezie hauek zaintzea desagertu ez daitezen.
- Espezie inbaditzaileei buruzko informazioa auzokideen artean zabaltzea, eta landare hauek kentzeko sistema bat bilatu.
- Informazio kanpaina gehiago egitea.

Alkateari zuzendutako galderak:

- Animaliak gustatzen zaizkizu? Maskotaren bat al daukazu? Zein?
- Lorategirik al duzu? Erantzuna baiezkoa izatekotan: Zer irizpide hartuko dituzu kontuan zure lorategiaren loreak aukeratzeko? Lorategian lan egitea (belarra moztea, loreak landatzea,...) gustatzen al zaizu? Zer ureztatze sistema erabiltzen duzu?
- Biodibertsitatearen babesa gure bizi-kalitatean eta bizitza mailan eragiten duela pentsatzen al duzu? Biodibertsitatearekin lotuta, zer ekintza burutzen ari dira Udalari? Udalari zer egin dezake?

...:[LA MILAGROSA IKASTETXEA]:...

AURREKO URTEETAKO KONPROMISO ETA PROPOSAMENEN JARRAIPENA

Bukatzeko, aurreko urteetan Udalari egindako proposamenen eta guk hartutako konpromisoen jarraipenaren ondorioak komentatu nahi ditugu, hurrengo gai hauek landu genituen aurreko agendetan: energia, hondakinak, ura, zarata eta mugikortasuna.

Hurrengo konpromiso hauek hartu genituen:

- Ez dugu ikasgeletako etengailuekin jolastuko.
- Etxetresna elektrikoak guztiz itzaliko ditugu.
- Paperontziak errespetatuko ditugu.
- Ez dugu zaborrik lurrera botako.
- Bainatu ordeztu duxatuko gara.
- Taldean ibiltzen garenean ez gara espaloi erdian hitz egiten geratuko.
- Hizketa baten jokoera onak erabiliko ditugu: banaka-banaka hitz egingo dugu, garrasirik egin gabe eta besteek esaten dutena adituz.
- Joan-etorri motzetan garraio publikoan, bizikletaz edo oinez joango gara.
- Bide-seinaleak errespetatuko ditugu eta gurasoei gogoraraziko diegu beraiek ere errespetatu behar dituztela.

Eta bete ditugu.

Udalari proposatutako proposamenen artean hauek dira oraindik bete ez direnak eta berritu nahi ditugu:

- Iturrien egoera aztertu eta giltza eta kanila berriak jarri.
- Ibaiaren ertzak eta inguruneak garbi mantendu.
- Herritarren artean ibaia garbitzeko kanpaina bat egin.
- Kaleak garbitzeko, landareak ureztatzeko, suteak itzaltzeko eta abarrerako edatekoa ez den ura erabili.
- Obra lanen zarata kontrolatzea.
- Bidegorriak hobetu, konpondu eta gehiago jarri jendea oinez edo bizikletaz ibili ahal izateko eta horrela trafikoa eta zarata murrizteko.
- Garraio publiko gehiago eta merkeagoa.
- Trenaren hilabeteko txartela, "Creditrans" bezalako sistema baten bitartez kudeatzea.

Hala ere, azken urteetan Eskolako Agenda 21ean Udalari proposatutako neurri batzuk bete egin dira, esate baterako:

- Kaleko farolak eta argiak beharrezkoak ez direnean itzaltzea (argi naturala dagoenean,...).
- Edukiontzia eta bere inguruak egoera onean mantentzea, husteko maiztasuna handitzea.
- Zarataren kontrako alde aurretiko neurriak hartzea.

Udalari eskerrak ematen dizkiogu gu entzuteagatik, eta aintzat hartzeagatik. Gure lana eta esfortzua herriaren biodibertsitatea hobetzeko eta kontserbatzeko berrito harrera ona edukitzea, eta denok batera pausoz pauso Laudioren biodibertsitatea hobetzea espero dugu.

Eskerrik asko zuen adeitasunagatik eta hurrengora arte.